

LEZON A.E.K. GREBAN

Lezoko A.E.K.k komunikatu bat plazaratu zuen, zeinean grebarako arrazoinak azaltzen zituen. Orri hartan zioenez, Udalak 1.250.000 pezetako subentzioa zor omen dio. Zehaztasun gehiago zekarren EGINek 86.3.26an:

"Duela hiru urte, 83-84ko ikasturtean alegia, sortu zen herri honetan euskal eskola hau. Hasi eta handik gutxira Udaletxera joan ginen laguntza eske eta Udaia^{zuela}k ahoz (ezer idatzi gabe) Euskaltegiaren defizita ordainduko esan zigun. Ikasturte horretan hilero jaso genuen subentzio hori, baina hurrengo urtean subentzioa hilero jaso beharrean bi zatitan ematea erabaki zen, lehenengoa 84.eko urritik abendua arte eta bigarrena urtarritik ekaina artekoari zegokiona. Lehenengo zatia eman ziguten, baina bigarrena eta hurrengo subentzioen arrastorik ikusi ere ez dugu egin".

Azkenez, Martxoaren 19an Udalak onartu egin zuen A.E.K.-ri 350.000 pezeta ematea laguntza bezala.

Beste aleetan aipatu izan dugu saminez, euskara geroz gutxiago erabiltzen dela oharreraziz. Badira, aldiz, jotake lanean diharduten erakunde bultzatzaileak: ikastola, herriko ikastetxeak eta AEK euskaltegia.

AEK ri dagokionez, ondorengo taulan ezagutzera ematen dugu gu berak daraman euskararen aldeko lana.


1.985 - 86 ko ikasturtean arratsaldeaz eta gauez matrikulatu ziren ikasleek hauk dira:

URRATSAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
I. a.	7	13	20
II. a.	2	7	9

URRATSAK	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK	GUZTIRA
III. a.	10	20	30
IV. a.	-	-	-
V. a.	2	5	7
Mintza- Praktika	7	7	14
Guztira	28	52	80

Bihoazkie lerro hauen bitartez gure lagunkidetasuna eta apioa hain lan eskergaitza egiten ari diren lankide horiei.

1.986 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK



Jato Pardo